



LAN ISTRIPUAK:
LAPRASTADAK, ESTROPEZUAK ETA ERORKETAK
 E.A.E.ko UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN

2016 – 2017 IKASTURTEA



LAN ARRISKUEN
 PREBENTZIO ZERBITZUA

**ACCIDENTES LABORALES:
 RESBALONES, TROPIEZOS
 Y CAIDAS**

ZUHURTZIAZ JOKATU !

¡JUEGA CON PRUDENCIA!

**LAN ISTRIPUAK:
 LAPRASTADAK, ESTROPEZUAK
 ETA ERORKETAK**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA SAIA DEPARTAMENTO DE EDUCACION

SPRL LAP7 Servicio de Prevención Riesgos Laborales
 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua

Txostenaren zenb: 14

Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzioa

Segurtasun arloko arduraduna: Marivi Carazo Alcubilla

2017ko Apirila



Langileei honako hau aditzera eman nahi diegu: 2016- 2017 ikasturtean **Laprastadak, estropezuak eta erorketen eraginez** gertatu diren lan istripuak eta beraien ondorioak.

Iturria: Lan Arriskuei aurre egiteko Zerbitzuari jakinarazitako istripuak formulario webaren bitartez. Denboraldia: Irailetik- Martxoa bitartean.

JAKINARAZITAKO ISTRIPUAREN TOKIA:

| | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 |
|----------------------------|-----------|-------------|------------------|
| In itinere-Desplazamenduak | 100 | 85 + 4 (89) | 130 + 17 (147) |
| Ikastetxeanl | 188 | 239 | 305 |
| Beste lantokian | 0 | 4 | 0 |
| Guztira | 288 | 332 | 452 |

DESBIDERAKETA¹

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonen erorketa-labainkada edo estropezua erorketarekin | 147 |
| 2 | Isurketa, lurrunketa, jarioa | 11 ⁱ |
| 3 | Arazo elektrikoa | 1 |
| 4 | Material edo lan ekipoen kontrol orokorra edo partziala galtzea ² | 46 +68 ⁱⁱ = 114ⁱⁱⁱ |
| 5 | Ahalegin fisikoa eskatzen duen gorputz-mugimendua | 74 ^{iv} |
| 6 | Esfortzu fisikorik gabeko gorputz-mugimendua | 33 ^v |
| 7 | Sorpresa,beldurra, indarkeria, agresioa, mehatxua, presentzia ³ | 66 ^{vi} |
| 8 | Beste desbideraketa batzuk | 6 |

PERTSONEN ERORKETA- LAPRASTADA edo ESTROPEZUA ERORKETAREKIN (147)

- a) IN ITINERE ETA DESPLAZAMENDUAK:** Gertaturiko 61 erorketak holako tokietan:
Kalea, espaloia,eskailerak, aldapa, kartzelako parkinga, metro geltokia, tren geltokia, aparkalekua, Etxebarria parkea...

"Ikastetxera zihoan,kalean **lurrean ziren hostoekin** laprast egin zuen"

"Etxera zihoan, **irristatu** eta oina bihurritu zitzaion"

1 Sistema Delt@ erabiltzen duen kodifikazioa Urtarrilaren 2017koa

2 Kontrola galtzea orokorra zein partziala izan daiteke

3 Langileak indarkeria fisikoa edo egoera traumatizatua pairatu duenean indarkeria nahita edo nahigabekoa eta enpresa barrutik edo kanpotik etor daiteke.



"Lanetik etxera itzultzen, **espaloitik jeistean** eskumako orkatila bihurritu zuen"

"Eskolara etortzeko, eskaileretatik jeisten, **mugimendu zakarra** egiten du eta oinean kolpea hartzen du"

"Ikaslegoa **ekintza osagarri** batera laguntzen zuen: Zinera. Labaindu eta lurrera erori da"

"Eraikuntzaren barruan leku batetik bestera mugitzen zegoen, lurra **bustirik zegoen eta irristatu** zen"

"Ikastetxera joateko garraio publikoa hartzera zihoan, **espaloiko ertzarekin** ezkerreko oinaren kontra jo zuen"

"Bere etxera itzultzen, behaztopa egin, **itsuentzako pibote gorriekin** katigatu eta lurrera erori zen"

"Ikastetxera zetorren, **espaloian** labaindu egin zen".

"Izandako dirulaguntza bat justifikatzearren udaletxeko Hiritar zentrura dokumentazioa neraman, tokitik atera baino lehen ez nuen **eskalera-maila** ikusi eta erori nintzen"

"Ikasleekin igerilekura joaten ari zen, kaletik zihoala, **espaloi ertzean zapaldu** eta orkatila okertu"

"Kotxea aparkatu ostean ikastetxera espaloitik zetorren, **laprast egin** eta belaunean kolpea hartu zuen"

"Bere etxetik atera eta espaloitik oinez zihoan kotxea hartzera, ikasleak praktikak egiten ari diren ikastola bisitatzeko asmoz, espaloitik **bajatzerakoan** orkatila trokatu eta jausi "

"Lantokira bidetik zetorren, **hanka zulo batean** sartu eta erori egin da"

"Topoa hartzeko zela pausu txar bat eman ondoren txorkatila okertu zuen"

"Ikastetxetik ateratzerakoan **txakur baten sokarekin topo** egin eta lurrera erori zen"

"**Inauteriko** desfilean ikasleekin, **estropetzua erorketarekin**"



b) IKASTETXEAN : 147etatik 86 erorketa suertatzen dira

| TOKIA | Erorketen kopurua | | |
|--|-------------------|-----------|-----------|
| | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 |
| Biltegia | 1 | 1 | 0 |
| Igogailua | 2 | 1 | 0 |
| Ikasgela | 14 | 11 | 16 |
| Komunak / Aldagelak | 1 | 1 | 1 |
| Sukaldea / Jantokia | 8 | 2 | 2+ 4= 6 |
| Irakasle gela /Bulegoak | 4 | 3 | 1 |
| Eskailerak | 19 | 21 | 29 |
| PASABIDEA / Sarrera | 8 | 22 | 15 |
| Jolastokia/ Gimnasioa/ Psikomotrizitatea | 3 | 19 | 11+ 4= 15 |
| Ez aipatutako beste tokia | 0 | 0 | 1 |
| Tailerra | 1 | 1 | 2 |
| | 61 | 82 | 86 |

“**Eskailerak igotzen** irristatu eta muturrez aurrera erori zen”

“Bere klaseko ikaslea heltzen **eskaileretan**, txarto zapaldu eta min jasanezina nabaritu zuen”

“Klasea ematen ari zela eta bere atzean lurrean eserita zegoen **ikasle batekin estropezu** egin eta atzeraka erori zen buruan, bizkarrean eta ezker aldeko besoan kolpe handia hartuz”

“**Esertzerakoan** bat-batean lurrera erori zen”

“Jantokiko bigarren txanda prestatzen zegoela, **sukaldean labaindu eta erori** zen”

“**Patioan** sartzen ari zela **laban egin** du eta erori”

“Ikastetxera sartzeko **eskailerak igotzen** behaztopatu zen”

“Jolastokira jeistean **eskaileretatik pausu txarto** eman eta oina okertu du”

“Jantokian gurdia husten zegoen **ikasle batek** mahaitik altxatzerakoan beraren kontra jo eta lurrera bota zuen”.

“Frontoitik Haur Hezkuntzara jeisten zegoen, azkeneko bi **eskalera-maila** saltatu zituen belaunikoz erortzen “

“**Patioan** zaintza egiten jolasorduan (10:45-11:20) ikasle batekin jolasten, ikaslea ez zapaltzeagatik oina txarto jarri eta erori zen”

“**Sartzeko bi eskalera** bajatzean **bustita zegoen zorua** zapaldu, laprast egin eta erori da “



“Abisu bat emateko asmoz jolastokiko ate batetik bestera zihoan , bera pasatzean atzera pauso bat eman zuen pertsonak nahigabe **zango traba jarri zion**”

“Mozorroak egiteko **kartoiak** erabiltzen ari ziren ,kartoi batzuk lurrean zeudelarik, **zapaldu** eta laprast egin zuen, besoan kolpea jasoz”

“**Lurrean etzanda zegoen ikasle batekin** estropezu egin zuen atzeruntz erortzen”

“Soldadura eraikuntzatik Metal eraikuntzera zihoan instalazioak garbitzeko, **harritxoekin** labaindu eta belaunean kolpatu zen “

“**Dutxara sartzeko zegoela** laprast egin zuen”

“Ikasleekin **jolastokian** metro 1 baino gehiagoko altueratik erorketa”

“Jantokiko solairuan **janariren puxka bat** zegoen, berak ez zuen ikusi, irristatu eta katamarra egin zen.”

“**Ikasgelan jostailu pieza txiki bat** zapaldu ondoren, erori egin zen”

“Irakasle **ordenagailu gelan** telefonoari erantzuteko aukitik altxatzerakoan, ordenagailuko **xaguaren kablearekin** estropezu egin eta belauniko erori zen lurrera”

“**Pintura tailerrean** kabinako lurrean, fosoko burdin sarea **kenduta** zegoen, konturatu ez eta barrura jausi zen, metro bateko altueratik”

“Sukaldariak leioa zabaltzeko beheko **armairu baten gainera** igo zen; armairutik jeisterakoan prakak heldulekuan trabatu eta ondorioz langilea erori”

“**Eskailerak** jeisten eskuan mopa zuela, **mandarina azal bat** zegoen eskaileretan. Ez zuen ikusi, zapaldu eta erortzera zihoala ikustean, barandilari eusten saiatzean bizkarrean uzkurdura “

“Euria ari zen, aterkinen **huri tantekin lurra** labaina zegoen, **pasiloan labandu**, oina okertu eta jausi”

“**Patioan** ihauterietako desfilean zebilen bere ikasleekin, orkatila okertu zuen”

“**Gelan** zegoela, **aulki batekin** estropezu egin eta lurrera erori zen”


Ikastetxean eta ikastetxetik kanpoko erorketek eragindako lesio mota: 147

| 14-15 | 15-16 | 16-17 | |
|-----------|------------|------------|---|
| 35 | 48 | 60 | Azaleko lesioak (kolpeak, ebakidurak...) |
| 2 | 4 | 2 | Lesio anitzak |
| 11 | 15 | 17 | Hezur-haustea |
| 41 | 51 | 60 | Lokatzeak, zaintiratuak eta distentsioak⁴ |
| 3 | 7 | 8 | Lesio mota ezezaguna edo zehaztu gabe |
| 92 | 125 | 147 | |

Erorketetan lesionatutako gorputz-atala:

| 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | |
|-----------|-----------|-----------|-------------------------------|
| 5 | 7 | 6 | Burua |
| 0 | 0 | 1 | Sudurra |
| 4 | 4 | 9 | Bizkarra |
| 0 | 3 | 0 | Lepoa |
| 0 | 1 | 0 | Begiak |
| 21 | 22 | 29 | Goiko gorputz-adarrak |
| 6 | 1 | 4 | Sorbalda |
| 5 | 8 | 9 | Besoa |
| 1 | 0 | 1 | Ukondoa |
| 5 | 3 | 9 | Eskumuturra |
| 4 | 9 | 3 | Eskua |
| 0 | 1 | 3 | Hatzamarrak |
| 49 | 73 | 88 | Beheko gorputz-adarrak |
| 6 | 12 | 17 | Hanka |
| 17 | 25 | 21 | Belauna |
| 8 | 8 | 13 | Oina |
| 16 | 28 | 34 | Orkatila |
| 2 | 0 | 3 | Behatzak |
| 13 | 14 | 10 | Atal anitz |
| 0 | 0 | 4 | Bestelakoak |

ZUHURTZIAZ JOKATU!

⁴ Barne:Artikulazio- hezurretako subluxazio eta desplazamendua, hausturak eragiten dituen gehiegizko esfortzua,muskulo, tendoi eta lotailuetako distentsio eta urradurak ...



ⁱ Espagetiak lapikoan eragiten zegoen, besoan **lapikoarekin erre zen** , “Frijitzen zegoela **olio-zipritzinek** saltatu dituzte “ , “Labea garbitzen, **deskopeztatzailea** hartzean tanta batek begira saltatu zuen” , “Ikasgelako mahaiak garbitzeko likidoa botatzean begira zipritzinak saltatu ziren” , “**Olio beroa zuen lapikoa** garbitzen zegoela, eskuko hatzamarren artean saltatu du”, “**Arraultzak frijitzen** zegoela olioak besoan zipritzinak bota ditu”, “**Tomate saltsa** esku gainean erori zaio”, “Arraina frijitzen **olioak begian** saltatu zuen”

ⁱⁱ “**Atzeko autoak** talka egin dio”, “**Motorra** gidatzen ibilgailu batek **lurrera bota** zuen”, “Gidatzen ari zen lanera etortzeko, kontrako bidetik zetorren **kamio bat** irristatu egin eta bere autoaren ezkerreko aldearen kontra jo zuen”, “Beste ibilgailu batek ez zuen **zedarik** errespetatu eta hegalean jo zuen”, “**Euria zela eta**, kotxearen kontrola galdu zuen”, “Kotxean nindoan ikastolara bidean, **stop batean kolpea**”, “Irakaslea Getxon bidegorritik ikastolara **bizikletaz** zihoan, biribilgune parean kotxe batek txirringa atzeko partetik jo zuen”, “**Semaforo batean geldituta** zegoen , berdea jarri zenean aurrera joan baina aurreko kotxea ez zen mugidu”, “**Atzera martxan aparkatzean** , zihoan kotxeak atzean zegoenari talka egin zion” , “Etixerako norabidean motorrez zihoan, biribilgunea hartzean kanpoko espaloia jo zuen oreka galdu eta lurrera erori zen”, “Euria gogor ari zen. Kotxea irristatu egin zitzaion eta geldirik zegoen autobus bati jo egin zion”, “Autobusak Amarako **errotondara** iristean, bapatean frenatu egin eta tente helduta zihoanez, eskubiko eskuan mina hartu zuen”, “Eskolara etortzen, **biribilgunean txirringa** joan zitzaion eta erori zen”, “**Auto-ilara** zegoen eta aurrean zegoen kotxeak galgatu eta jo zuen eta nire kotxeak aurrekoa”, “Eskolarako bidean oinez zetorrela, **zebra bidea igarotzean** kotxeak harrapatu zuen”, “Balenciaga Ontzioletan bisita egin ostean etxera zihoan (Zarautz) , **derrapatu zuen eta motorretik erori** zen”.

ⁱⁱⁱ “**Paperezko gillotina** manipulatzen zegoen”, “**Kotxeko xasisa soldatzen** zegoela arkuak harrapatu zuen” , “**Hauspeakin edalontzia** garbitzen” , “**Foko bat** manipulatzen ari zen argazkigintza tailerrean”, “Tailerrean, **metalezko xafla mozten** eskumuturrera erori zaio”, “**Korrikaren pankarta** eskegitzen zegoela, eraztuna hesian uztartu zitzaion “ , “**Kuter batez** ebakitzen zegoela”, “**Gabonetako apaingarriak** ipintzen **aulki batetik erori** da”, “Erori zitzaion **tapa** hartzerakoan”, “ Oinez kotxera zihoala **farola baten kontra** jo zuen”, “Sikatzen zegoen **patatak zuritzeko makinaren hortzaz** hatzamarrean moztu da”, “**Iragazkia** erori zaio”, “ labainez beteriko kutxa hartu zuen, **punta kanpora zuen labainaren** kontra egin zuen” , “**Azenaorioak** mozten ari zela, labanak ihes egin zitzaion eta eskuineko hatzamarrean moztu zen” , “**Burdinezko tutuak soldatzen** eta mozten, rebarbarekin moztu da”, “Ikasleak baloiarekin jolasean **baloikada** jaso zuen aurpegian”, “**Eskua** tornoaren defenza eta plateraren artean erori zaio”, “**Lapikoa** biltegitik sukaldera **garraiatzen** ari zen”, “Esku batekin tapa altxatu eta bestearekin zaborra botatzerakoan **kontenedorearen ertzari** eman dio “

^{iv} 2 urteko umeei **pardelak aldatzen** zegoela”, “Ikasleek **ariketa fisiko bat** zelan egin behar zuten **azaltzen** ”, “**Heimlich maniobra** egitean, lankide batek ezegokia zen keinua egin eta saihetsean kraska ”, “**Bafleak** eskuz garraiatzen”, “ **Euskaldantza** erakusten”, “**Ikaslea lurrera bota zen** eta irakasleari bizeps muskuluan urradura eragin dio”, “**Sagar kutxa altxatzerakoan** bizkarrean uzkuradura izan zuen”, “Ordenagailuen dorreak zeramatzan **gurdia garraiatu**”, “**Altzariak garraiatzean** egindako esfortzuagatik” , “Pisutsuak diren **liburuz beteriko mahaiak mugitzean** bizkarrean uzkuradura”, “Jolastokian zegoen eta **baloia gogor jauritzean**”, “Jantokiko **bankuak igotzean** bizkarrean tiroia eman” , “**Ume ttiki bat (2 urte) hartzera** makurtu zenean”, “**Sokasaltoko ariketak egiten** ari zirela, salto egitera joan eta krakatekoa entzun zuen”, “**Marinba jotzen** gelan mina izan zuen” , “Eskolaurreko gelan **haurrekin dantzatzen**”, “**Oheak batzen** zegoela”



^v **Kotxetik jeistean** kraka sentitu zuen”, **“Aulkitik altxatzean** min handia izan zuen”, **“ Jolastokian zaintza egiten baloia oinarekin kentzean”**, **“Estropezu egin,txarto zapaldu”**, **“Metroko geltokian pertsona batek zapaldu zion ezkerreko oineko behatz txikia”**, **“Eskailera-maila jeistean ziztada nabaritu zuen”**, **“Ordenagailua erabiltzen, eskumuturreko mina”**, **“Eserita zegoen eta jaikitza zihoa momentuan, belaunean ziztada bat nabaritu zuen”**.

^{vi} **“Umea ustekabeen mugitu zen eta epigastriko zonaldean ukabilkada eman zion”**, **“Bazkaltzen laguntzen zegoen Hezkuntza Bereziko ikasleak eraso zuen”**, **“Ikastetxeko sarreran ihes egin nahi zuen Haur Hezkuntzako ikaslea heldu nahian biak estropezu egin eta lurrera erori ziren”**, **“Jolastokian ikasle bat beste batekin haserretu Hezkuntza Laguntzako Espezialistak saihesten du eta ikasleak ostikoa ematen dio”**, **“Ikasgelatik haserre eta korrika ateratzen zen ikasleak buruarekin irakaslearen sudurra kolpatuz”**, **“Ikaslea bere onetik aterata zegoen ikaslearrangana hurbiltzean esku-zarta eta ostikada jaso zituen”**, **“Gelan zegoelarik ikasle batek aurpegian burakada eman zion eta eskaileretatik bota zuen”**, **“Eskuak hartzean haginkada handia eman zion”**, **“ 4. Eta 5. Mailako burrukatzen ziren hiru ikasle banatzen zegoen irakaslea , borroka honetan lurrera erori eta aurpegian kolpea hartu zuen”**, **“Borroka bukatua zegoela, irakaslea erasotzaileak lasaitzen zegoenean haietako batek ukabilkada eman zion”**, **“Bere klasean zegoen irakasleak eraso gertaeragatik ikasle bati atentzio deitzen dio, honek iraindu eta mehatxatzen du”**, **“Haur Hezkuntzako 2. Mailako ikasleak irakasleari iletatik tiratu, ostikadak ta burukadak emanez mahaien kontra bultza egiten”**, **“Ikaslea jangelatik ateratzean , ostikoka eta txistua botatzen hasi zen”**, **“Lanik egin nahi ez zuen ikaslearekin zegoen , ikaslea iletik tiraka eta ostikoka hasi zen”**.